

Bi: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua betetzeko.

Hiru: Jakinarazi Bilboko Udalbatzarreko Idazkaritza Nagusiarri.»

Bilbon, 2016ko azaroaren 14an.—Alkatetzaren, Garapen Ekonomikoaren eta Gobernu Onaren zinegotzi ordezkaria, Mikel Álvarez Yeregui

(II-5328)

Behin betiko onartzea Bilboko Hiri Antolaketa-Plan Orokorraren barruko 7. Ordenantzaren aldaketa, Zabalguneari dagokiona (Espediente 2016-006536).

Bilboko Udalbatzak 2016ko azaroaren 24an egindako batzaraldian erabaki hau hartu zuen besteak beste:

«*Bat:* Behin betiko onartzea Bilboko Hiri Antolaketa-Plan Orokorraren barruko 7. Ordenantzaren aldaketa, Zabalguneari dagokiona; hain zuzen, hirigintza-erabilera batzuetan erregimen berria ezarriko da, besteak beste, ostalaritzan. Horretarako erabilerak arautzen dituen hirugarren sekzio berria sartuko da eta beharrezko aldaketak egingo dira, bere egunean hasieran onartutako proiektuari egindako alegazioak zati batean onartu izanaren ondorioz sailak egindako testuarekin bat etorrira.

Bi: Arautegi berria Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta udalaren webgunean sartzea.

Hiru: Erabakia eta aurreko txostena jakinaraztea, onartutako testuarekin batera, espedientearen agertzen direnei eta aurreko ditzaketaren errekurtsoak adieraztea. Beste alde batetik, egiaztagiria egitea eragina izan dezan Obrak Egiteko eta Lokalak Zabaltzeko Lizentzien Sailatalean, Hirigintza Diziplinako Sailatalean, Kudeaketako Sailatalean, Idazkaritza Teknikoko eta Zerbitzu Orokorrak Sailatalean, Plan Orokorra Berrikusteko Bulegoko arduradun juridikoaren aurrean eta barruti-kontseiluen aurrean.»

AURKABIDEAK

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako, hilabete biko epea izango da, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hasita, halaxe ezartzen baitu Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko 29/1998 Legearen 46. artikulua. Hala ere, beste edozein aurkabide erabili ahal izango da, egoki irizten bazaio.

ONARTUTAKO ARAUTEGIA

ZORTZIGARREN KAPITULUA

7. ORDENANTZA, ZABALGUNEARI DAGOKIONA

LEHENENGO ATALA

ESPARRUA

8.8.1. artikulua.—*Esparrua*

(…)

BIGARREN ATALA

ERAIKUNTZARAKO BALDINTZAK

8.8.3. artikulua.—*Beheko eta lehenengo solairuetarako baldintzak*

Erdiko gunean, etxebizitza erabilerako eraikin berriek sarbide independentea izan beharko dute ataritik lehen solairura joateko.

Segundo: Proceder a la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» de la presente resolución, en cumplimiento del artículo 70.2.o de la Ley 7/1985, de 2 abril.

Tercero: Comuníquese a la Secretaria General del Pleno.»

En Bilbao, a 14 de noviembre de 2016.—El concejal delegado de Coordinación de Alcaldía, Desarrollo Económico y Buen Gobierno, Mikel Álvarez Yeregui

(II-5328)

Aprobar definitivamente la modificación de la Ordenanza número 7 para la zona del Ensanche del Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao (Expediente 2016-006536).

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada con fecha 24 de noviembre de 2016, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

«*Primero:* Aprobar definitivamente la modificación de la Ordenanza número 7 para la zona del Ensanche del Plan general de Ordenación Urbana de Bilbao, consistente en establecer un nuevo régimen para algunos usos urbanísticos, entre ellos, el de hostelería, mediante la introducción de una nueva sección tercera reguladora de los usos y los oportunos cambios en su regulación, conforme al texto elaborado por dicha Área, como resultado de la aceptación parcial de las alegaciones presentadas sobre el proyecto aprobado inicialmente en su día.

Segundo: Publicar la nueva normativa en el “Boletín Oficial de Bizkaia”, e incluirlo en la página web municipal.

Tercero: Notificar el acuerdo y el informe precedente, así como el texto aprobado, a quienes se han personado en el expediente, indicándole los recursos procedentes, y deducir testimonio ante las Subáreas de Licencias de Obras y Aperturas, Disciplina Urbanística, Gestión y Secretaría Técnica y Servicios Generales, el responsable jurídico de la Oficina de Planificación Urbana, y ante los Consejos de Distrito.»

MEDIOS DE IMPUGNACIÓN

Contra la resolución que se le notifica, que es definitiva en vía administrativa, podrá Interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación conforme al artículo 46 de la Ley 29/1998, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa; todo ello sin perjuicio de que pueda utilizar cualquier otra vía de impugnación, si lo estima oportuno.

NORMATIVA APROBADA

CAPÍTULO OCTAVO

ORDENANZA NÚMERO 7 PARA LA ZONA DEL ENSANCHE

SECCIÓN PRIMERA

ÁMBITO TERRITORIAL

Artículo 8.8.1.—*Ámbito*

(…)

SECCIÓN SEGUNDA

CONDICIONES DE LA EDIFICACIÓN

Artículo 8.8.3.—*Condiciones de las plantas baja y primera*

En el ámbito correspondiente al Área Central, los nuevos edificios de uso residencial deberán contar con acceso independiente desde el portal a la primera planta.

Orubearen neurria eta forma kontuan bigarren sarbide hori eginen lehenengo solairuaren eta beheko solairuaren funtzionaltasunari muga handia eragiten zaionean. Udalak (arrazoituriko txosten teknikoaren ostean) eskakizun hori salbuetsi egin dezake, baina obra berriko adierazpenean lehenengo solairua bulego erabilerara bideratzeko berariazko debekua jasota geldituko da.

8.8.4. artikulua. — *Eraikuntzarako baldintzak*

(...)

HIRUGARREN ATALA
ERABILEREN BALDINTZAK

8.8.24. artikulua. — *Bulego-eraikin berriak*

1. Erabileren Murrizketen Planoan zedarritutako erdiko gunean debekatuta dago bulegoetako eraikin berriak egitea, planean hirugarren sektoreko erabilera xehaturako (7. erabilera) berenberegiko kalifikazioa daukaten orubeetan izan ezik. Hori 6.3.41. artikuluan dago araututa.

2. Erabileren muga hori eta Erabileren murrizketen planoan adierazitako eremuetan beheko solairuetarako ezartzen diren arauak ez daude lotuta.

8.8.25. artikulua. — *Ostalaritzako erabilera. Arau orokorrak*

1. Artikulu hauek arautuko dute ostalaritzako establezimendu berriak jartzea eta, hala badagokio, lehendik daudenak handitzea eta, ordezkio izaeraz baino ez du hori arautuko Ostalaritzako Establezimenduei buruzko Ordenantzak.

2. I. taldeko establezimenduek (dastalekuak, izozki-dendak etab.) eta alkohola duten edarien salmentarik eta kontsumorik gabeko beste establezimendu batzuek edota Ostalaritzako Establezimenduei buruzko Ordenantzako osagarriek, II-R (barrarik gabeko jatetxea) eta II-T (txokoak) azpitaldekoek ez dute gutxieneko tar-tearen baldintza bete beharko, ezta 8.8.27. artikuluan azaldutako murriztapenak ere.

3. II. azpitaldean (egunekoak) eta II. taldeko establezimenduek, 2. paragrafoan II-R eta II-T azpitaldekoentzat aipatutako salbuespenekin, gutxieneko distantzien baldintza eta 8.8.27. artikuluan azaldutako murriztapenak bete behar dituzte.

4. Ostalaritzako Establezimenduei buruzko Ordenantzako III. taldeko establezimenduek ordenantza hori eta plan orokorra bete beharko dituzte. Hala ere, III. taldeko establezimendu bat jartzeko lehendik dagoen beste baterainoko gutxieneko distantzia, azken honen kokapena edozein delarik ere, II. taldeko lokaletan 8.8.27. artikuluan azaldutakoa izango da.

5. Ostalaritzako establezimenduei lotutako terrazek eta mahaitxoek I. Eranskinean jasotako irizpideak beteko dituzte.

8.8.26. artikulua. — *Eremuaren lurralde-banaketa*

Araututako eremuei buruzko 01 planoko grafikarekin bat etorrita, honako hauek daude.

1. Kale-tarteak; hau da, kale baten tarteak edo zatiak, zeharkako kale bien artekoak. Hauexek izan daitezke.

a) Dentsitate handiko kale-tarteak, kaleko 100 metro linealeko, ostalaritzako establezimenduen 5,50eko ratioa edo hortik gorakoa dutenak. Horietan ostalaritzako beste jarduera bat jartzeak araututako eremuaren batez besteko dentsitatearen bikoitza gaintzea lekarke.

b) Merkataritza-korridoreak, merkataritza-jarduera eta erabilera gehien duten kale-tarteak edo ardatzak direlako halakotzat hartuak. Horietan arautegiak eutsi nahi dio dagoen egoerari.

c) Hiri barruko bidexkak, arautegiak oinezkoen joan-etorriari eutsi edo sustatu nahi duen kale-tarteak edo ardatzak direlako eta merkataritza, egoitza edota interes turistikoko aldeak konektatzeko ardatzen funtzioa egiten dutelako halakotzat joak.

Cuando por el tamaño y forma del solar, la realización de este segundo acceso signifique una importante limitación a la funcionalidad de la planta baja y primera el Ayuntamiento, previo informe técnico razonado, podrá eximir de dicha exigencia, si bien quedará acreditado en la declaración de obra nueva la prohibición expresa de destinar la planta primera a uso de oficinas.

Artículo 8.8.4. — *Condiciones de la edificación*

(...)

SECCIÓN TERCERA
CONDICIONES DE LOS USOS

Artículo 8.8.24. — *Nuevos edificios de oficinas*

1. En el ámbito del Área Central delimitado en el Plano de Restricciones de Usos, se prohíbe la realización de nuevos edificios de oficinas, salvo en aquellos solares que el Plan califica expresamente como uso pormenorizado el Terciario- Oficinas (Uso 7, situación 1) regulado en el artículo 6.3.41

2. Esta limitación es independiente de la regulación de usos que se establece para la planta baja en los ámbitos que se señalan en el plano de Restricciones de Usos.

Artículo 8.8.25. — *Uso de hostelería. Reglas generales*

1. La implantación de nuevos establecimientos hosteleros, así como, en su caso, la ampliación de los existentes, se regirá por lo dispuesto en los presentes artículos y sólo de forma supletoria por la Ordenanza Local sobre Establecimientos de Hostelería (OLEH).

2. Los establecimientos incluidos en los Grupos I (degustaciones, heladerías, etc. y otros locales sin venta ni consumición de bebidas alcohólicas) y/o Complementario de la OLEH, al igual que los de los Subgrupos II-R (restaurantes sin barra) y II-T (txokos), no están sujetos al requisito de las distancias mínimas ni a las limitaciones señaladas en el artículo 8.8.27.

3. Los establecimientos incluidos en el Subgrupo II- Diurno y en el Grupo II, con las excepciones señaladas en el apartado 2 relativo a los Subgrupos II-R y II-T, quedan sujetos al requisito de las distancias mínimas y a las limitaciones señaladas en el artículo 8.8.27.

4. Los establecimientos encuadrados en el Grupo III de la OLEH, quedan sometidos a la regulación de la misma y del Plan General. No obstante, la distancia mínima para instalar un establecimiento del Grupo II respecto de otro ya existente del III, sea cual sea el emplazamiento de éste, será la misma que la señalada en el artículo 8.8.27 para los locales del grupo II.

5. La instalación de terrazas y veladores vinculadas a los establecimientos de hostelería se sujetarán a los criterios recogidos en el anexo I.

Artículo 8.8.26. — *División territorial del ámbito*

De acuerdo a la representación gráfica reflejada en el plano 01 Ámbitos de regulación, se distinguen:

1. Tramos de calle, entendiéndose por tramos aquellos trechos o partes en que se divide una calle y que transcurre entre dos transversales, y que pueden ser:

a) Tramos de calles densificados, así considerados por contar con una densidad igual o superior al ratio de 5,50 establecimientos de hostelería por 100 metros lineales de calle, en donde la implantación de una nueva actividad de hostelería supondría superar el doble de la densidad media del ámbito de la regulación.

b) Corredores Comerciales, así considerados por ser ejes o tramos de calles con mayor implantación de usos y actividades comerciales y que la normativa pretende preservar.

c) Sendas Urbanas, así consideradas por ser ejes o tramos de calle donde la normativa pretende preservar o fomentar el tránsito peatonal y por su función de ejes de conexión entre diferentes zonas comerciales, residenciales y/o de interés turístico.

d) Aurrekoetan (a, b edo c hizkietan) sartuta ez dauden gainerako kale-tarte guztiak.

2. Terrazen gune bereziak, grafiketan horrela azalduta dauden aldeak. Horietan 8.8.25.5. artikularekin eta I. Eranskinarekin bat etorrita, terrazak jartzea araupetze bereziaren xedea da.

8.8.27. artikulua. — Ostalaritzako establezimenduak jartzeko gutxieneko distantzien erregimena eta mugak

1. 8.8.26. artikularekin bat etorrita, Ostalaritzako Establezimenduei buruzko Ordenantzako II. taldeko jarduerak, II-R eta II-T azpitaldekoentzat aipatutako salbuespenekin, gutxieneko distantzia edo muga hauek izango dituzte.

a) Dentsifikatutako tarteetan ezingo da jarri ostalaritzako jarduerarik, ezta lehenik daudenak handiagotu ere.

b) 7. Ordenantzaren perimetroan, merkataritza-korridoreetan ostalaritzako establezimendu berriak jarri edo daudenak handitzeko lehenik instalatuta dagoen eta lizentzia indarrean duen Ostalaritzako Establezimenduei buruzko Ordenantzako II. taldeko beste jarduera baterainoko gutxieneko distantzia 40 metrokoa izango da.

c) 7. Ordenantzaren perimetroan, hiri barruko bidexketan ostalaritzako establezimendu berriak jarri edo daudenak handitzeko lehenik instalatuta dagoen eta lizentzia indarrean duen Ostalaritzako Establezimenduei buruzko Ordenantzako II. taldeko beste jarduera baterainoko gutxieneko distantzia 35 metrokoa izango da.

d) 7. Ordenantzaren perimetroan, gainerako tarteetan ostalaritzako establezimendu berriak jarri edo daudenak handitzeko lehenik instalatuta dagoen eta lizentzia indarrean duen Ostalaritzako Establezimenduei buruzko Ordenantzako II. taldeko beste jarduera baterainoko gutxieneko distantzia 30 metrokoa izango da.

2. Merkataritza-korridore edo hiri barruko bidexka batek dentsitate handiko tarte bat edo gehiago edukiz gero, dentsitate handiko tarteentzako mugek lehenetsuna izango dute aplikatzeko orduan.

3. Artikulu honetako 1 zenbakian aurreikusitako mugak eta distantziak aplikatzeko honako arau hauek bete beharko dira:

a) 7. Ordenantzako perimetroaren barruan soilik izango dituzte ondorioak eta alboko eremu edo tarteetan ez dute eraginik izango.

b) Lokalaren sarrera dagoen fatxadaren aurrealdeko kale edo plaza publikoan eta horren zaharkakoan baino ez dute eraginik izango.

c) II. Eranskinen azalduta dagoen bezala, modu erradialean neurtuko da gutxieneko distantzia eta Ostalaritzako Establezimenduei buruzko Ordenantzako 8. artikuluan ezarritakoa analogiaz aplikatuko da.

d) Merkataritza-korridore, hiri barruko bidexka edo gainerako tarteetan ostalaritzako jarduera berrientzat exijitutako 40, 35 edo 30 metroko gutxieneko distantzia, lehenik dauden eta lizentzia indarrean duten lokalekiko neurtuko da, nahiz eta azken lokal horiek jarduera berria jarri nahi den merkataritza-korridore, hiri barruko bidexka edo gainerako tarteetatik kanpo egon.

e) Artikulu honetako 1. zenbakian ostalaritzako establezimenduak handitzeko ezintasunari edo mugari buruz xedatutakoa gorabehera, handitzea baimendu daiteke, Ostalaritzako Establezimenduei buruzko Ordenantzako 24.1.c artikularekin bat etorrita.

8.8.28. artikulua. — Ostalaritzako jarduerak beste leku batean jartzea

1. Dentsitate handiko tarte batean dagoen II. taldeko ostalaritzako jarduera bat 7. Ordenantzaren eremuko den eta dentsitate handikoa ez den beste tarte batera aldatzea baimendu daiteke kokaleku berriak gutxieneko distantzien baldintza bete gabe. Hala ere, honako hauek bete beharko dira.

d) Resto, o todos los tramos de calles que no queden comprendidos en alguno de los tres apartados anteriores a, b o c.

2. Zonas especiales de terrazas, aquellas zonas delimitadas como tal en la representación gráfica, donde la instalación de terrazas es objeto de una regulación singularizada de conformidad con el artículo 8.8.25.5 y el anexo I.

Artículo 8.8.27. — Limitaciones y régimen de distancias mínimas para la implantación de establecimientos hosteleros

1. De conformidad con la regulación contenida en el artículo 8.8.26, a las actividades hosteleras del Grupo II de la OLEH, con las excepciones previstas para los subgrupos II-R y II-T, serán de aplicación las siguientes limitaciones y/o distancias:

a) En los tramos densificados no se podrán instalar nuevas actividades de hostelería ni ampliar las existentes.

b) En los corredores comerciales, para poder instalar o ampliar establecimientos de hostelería deberá cumplirse el requisito de la distancia mínima de 40 metros respecto de otro del mismo Grupo II de la OLEH ya instalado y con licencia en vigor dentro del perímetro de la Ordenanza número 7.

c) En las sendas urbanas, para poder instalar o ampliar establecimientos de hostelería deberá cumplirse el requisito de la distancia mínima de 35 metros respecto de otro del mismo Grupo II de la OLEH ya instalado y con licencia en vigor dentro del perímetro de la Ordenanza número 7.

d) En el resto, para poder instalar o ampliar establecimientos de hostelería, deberá cumplirse el requisito de la distancia mínima de 30 metros respecto de otro del mismo Grupo II de la OLEH ya instalado y con licencia en vigor dentro del perímetro de la Ordenanza número 7.

2. En el supuesto de que un corredor comercial o una senda urbana incluya algún o algunos tramos densificados, serán de aplicación prevalente las limitaciones propias de los tramos densificados.

3. Las limitaciones y distancias previstas en el apartado 1 se aplicarán de conformidad con las siguientes reglas:

a) Únicamente tendrá efectos dentro del perímetro de la Ordenanza número 7, sin incidir en los ámbitos o tramos colindantes.

b) Sólo afectarán al vial público (calle, plaza,...) a que dé frente la fachada con acceso del local, así como al transversal a aquél.

c) La distancia mínima se medirá de forma radial, según queda reflejado en los gráficos explicativos del Anexo II, aplicándose por analogía lo establecido en el artículo 8 de la OLEH.

d) La distancia mínima de 40, 35 o 30 metros exigida para la implantación de nuevas actividades hosteleras en los corredores comerciales, sendas urbanas o tramos restantes, se mide respecto de los locales ya instalados y con licencia en vigor, aunque estos últimos locales se ubiquen fuera del tramo (corredor comercial, senda urbana o tramo restante) donde pretenda instalarse la nueva actividad.

e) No obstante lo dispuesto en el apartado 1 relativo a la imposibilidad o limitación de ampliar los establecimientos de hostelería, se podrá autorizar la ampliación en los términos previstos en el artículo 24.1.c de la Ordenanza Local sobre Establecimientos de Hostelería.

Artículo 8.8.28. — Reubicación de actividades hosteleras

1. Se podrá autorizar que una actividad hostelera del Grupo II, ubicada en un tramo densificado, pase a desarrollarse en cualquier otro tramo de calle que no sea densificado del ámbito de la Ordenanza número 7 sin la exigencia del cumplimiento del requisito de las distancias mínimas en el nuevo emplazamiento, conforme a los siguientes términos:

a) Lekuz aldatze horrek ez du establezimendu edo lizentzia-kopurua handituko. Beraz, dentsitate handiko tartean, ostalaritzako erabilera hauetan jarduteko indarrean dauden baimenen titularrek horiei uko egin beharko diete eta dagokien jardueretan aritzeari utzi baimen berriak eskuratu aurretik.

b) Lokal berriaren erabilera erabilgarria gehenez lokal zahar-
rrak zuen erabilera erabilgarria baino %20 handiagoa izango da.

c) Lokal berrien kopurua ezin izango da bat (1) baino gehiago izan kale-tarte bakoitzeko.

2. Era berean, 7. Ordenantzaren eremuko edozein tartetan dagoen II. taldeko ostalaritzako jarduera bat 7. Ordenantzaren eremuko den eta dentsitate handikoa ez den beste tarte batean garatzea baimendu daiteke kokaleku berriak gutxieneko distantzien baldintza bete gabe. Hala ere, honako hauek bete beharko dira.

a) Lekuz aldatzeak berekin ekarriko du eskaria egiten denean indarrean dagoen arautegiak eskatzen dituen gutxieneko distantziak betetzen ez dituen II. taldeko jarduera kentzea, III. taldeko jarduera bat kentzea edo III. taldeko jarduera bat II. taldeko jarduera bihurtzea; eta horrekin lehengo jarduerari eta lizentziari edo gaitu izanari (jardueren araberako produktuen saikapena) uko egitea.

b) Lokal berrien kopurua ezin izango da bat (1) baino gehiago izan kale-tarte bakoitzeko.

3. Udalerriko edozein aldetan kokatuta dagoen III b taldeko jarduera bat 7. Ordenantzako eremuko beste lokal batean garatzea baimendu daiteke, gutxieneko distantzien baldintza bete gabe, lokal berria dentsitate handiko kale-tarte batean ez den beste batean badago eta lekuz aldatzeak berekin badakar III b taldeko jarduera bat II taldeko jarduera bihurtzea. Lokal berriaren erabilera erabilgarria gehenez lokal zaharrek zuen erabilera erabilgarria baino %40 handiagoa izango da.

4. Aurreko zenbakietan xedatutakoa alde aurreko komunikazioaren sistema dagoen kasuetan ere aplikatu daiteke.

8.8.29. artikulua. — Merkataritzako erabilera eta hirugarren sektoreko zerbitzuetakoa

1. Joko edo jolas-jarduerak jartzeak edo daudenak handitzeak eta Elikagaiak Saltzeko Establezimenduei buruzko Ordenantzan araututako dendek (7. erabilera, hirugarren sektorea, 2. egoera, txikizkako merkataritzako erabilera ez kontzentratua), ostalaritzaz azaldutakoaren kalterik gabe, dagokien jardueren arteko gutxieneko distantzien baldintza eta mugak bete beharko dituzte, honela.

a) Ezin izango da joko edo jolas jarduera berririk jarri, ezta daudenak handitu ere, dentsitate handiko tartean, ezta merkataritza-korridoreetan ere.

b) Hiri barruko bidexketan eta gainerako tartean joko zein jolas jarduerak jartzeko edo handitzeko lehendik instalatuta dauden establezimendu berdinekiko gutxieneko distantzia 100 metrokoa izango da.

c) Elikagaiak Saltzeko Establezimenduei buruzko Ordenantzan araututako dendak 7. Ordenantzako eremu guztian jartzeko edo handitzeko lehendik instalatuta dauden establezimendu berdinekiko gutxieneko distantzia 100 metrokoa izango da.

2. Merkataritza-erabileren arteko gutxieneko distantziak, ostalaritzako jardueren artekoak bezala, 8.8.27.3. artikulurekin bat etorrira kalkulatu dira. Elikagaiak Saltzeko Establezimenduei buruzko Ordenantzan araututako dendek kasuan, lehendik dagoen lokalean zama-lanak egiten diren sarbide bakoitzaren erdiko puntutik egingo da neurketa edo, horrelakorik ez balego, jendearen zako edozein sarbidearen erdiko puntutik. 100 metroko distantzia elikagaiak saltzeko denda berriaren zama-lanak egiteko edozein sarbide edo pasabidearekiko bete beharko da.

a) La reubicación nunca podrá suponer un aumento del número de licencias ni de establecimientos, por lo que las personas titulares de los permisos vigentes para ejercer estos usos de hostelería, dentro del tramo densificado, deberán renunciar a los mismos, y cesar en las actividades correspondientes, antes de acceder a las nuevas autorizaciones;

b) El nuevo local podrá tener, como máximo, una superficie útil de un veinte por ciento (20%) superior a la del antiguo; y

c) El número de nuevos locales no podrá superar el de uno (1) por cada tramo de calle.

2. Asimismo, se podrá autorizar que una actividad hostelera del Grupo II, ubicada en cualquier tramo del ámbito de la Ordenanza número 7, se desarrolle en otro establecimiento hostelero, con licencia vigente en cualquier tramo de calle que no sea densificado, sin las limitaciones y exigencia del cumplimiento del requisito de las distancias mínimas en el nuevo emplazamiento, conforme a los siguientes términos:

a) La reubicación tendrá como resultado la supresión, con la consiguiente renuncia, de una actividad del Grupo II que incumple en el momento de la solicitud las distancias exigidas por la normativa vigente, la supresión de una actividad del Grupo III, o la conversión de una del III en una del II, así como de la correspondiente licencia o habilitación (CPA).

b) El número de nuevos locales no podrá superar el de uno (1) por cada tramo de calle

3. Se permitirá que una actividad del Grupo III b ubicado en cualquier zona del municipio, se desarrolle en otro local del ámbito de la Ordenanza número 7 sin la exigencia del cumplimiento de las distancias mínimas, siempre que el nuevo local esté ubicado en cualquier tramo de calle que no sea densificado y siempre que este cambio de emplazamiento tenga como resultado la conversión de una actividad del Grupo III b en Grupo II. El nuevo local podrá tener, como máximo, una superficie útil de un cuarenta por ciento (40%) superior al antiguo.

4. Lo dispuesto en los apartados anteriores será igualmente aplicable a los casos en que rija el sistema de comunicación previa (CPA)

Artículo 8.8.29. — Uso comercial y de servicios terciarios

1. La instalación o ampliación de actividades de juego o recreativas y los comercios de alimentación regulados en la Ordenanza sobre Establecimientos Comerciales de Alimentación (uso 7, terciario; situación 2, comercial al por menor de carácter no concentrado) sin perjuicio de lo ya indicado para hostelería, queda sujeta a las limitaciones y al requisito de distancias mínimas entre las actividades respectivas, tal y como se detalla a continuación:

a) No se podrán instalar nuevas actividades de juego o recreativas ni ampliar las existentes en los tramos densificados ni en los corredores comerciales.

b) Para poder instalar o ampliar las actividades tanto de juego como recreativas en las sendas urbanas y en el resto de tramos, la distancia mínima respecto de los establecimientos iguales ya instalados será de 100 metros.

c) Para poder instalar o ampliar comercios de alimentación regulados en la Ordenanza sobre establecimientos comerciales de alimentación en todo el ámbito territorial de la Ordenanza número 7, la distancia mínima respecto de los comercios iguales ya instalados será de 100 metros.

2. Las distancias mínimas entre los usos comerciales se calcularán, al igual que para las actividades hosteleras, conforme se establece en el artículo 8.8.27.3. En los comercios de alimentación regulados en la Ordenanza sobre Establecimientos Comerciales de Alimentación, la medición se efectuará desde el punto medio de cada uno de los accesos desde el que se realiza la carga y descarga del local ya existente o, si no lo tuviera, desde el punto medio de cualquiera de los accesos al público. La distancia de 100 metros deberá cumplirse respecto del vado de acceso a cualquiera de los puntos de carga y descarga del nuevo comercio de alimentación.

3. Beheko solairuan dauden kreditu-entitateek, agentziek eta bulegoek eta aseguru-konpainien bulegoek (7. erabilera, hirugarren sektorea, 1. egoera, bulegoa) Bilboko Hiri Antolaketarako Plan Orokorren Erabileren Arauen 6.4.3. artikuluan jasotakoa bete beharko dute.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

1. Zenbait erabileraz (ostalaritza, elikagaien salmenta etab.) 8.8.27. eta 8.8.30. artikuluetan araututakoak lehentasuna izango du dagozkien udal ordenantzek ezarritakoarekiko. Dena dela, 2016ko otsailaren 24an onartutako lizentziak emateari uzteko erabakia 2016ko martxoaren 8an sartu zen indarrean; eta egun hori baino lehenagoko lizentzien eskariak eta alde zurrerako komunikazioak aurkeztu zituztenean indarrean zegoen arautegiaren arabera erabakiko dira.

2. Gobernu Batzordeak hartutako eta arauak agindu bezala argitaratuko erabakiz alda daitezke araututako eremuei buruzko 01 plano (araututako eremuen plano eta beraz dentsitate handiko tarteak, merkataritza-korridoreak, hiri barruko bidexkak eta identifikatutako terrazaren gune bereziak), II. Eranskina (distantziak neurteari buruzkoa) eta I. Eranskina (terrazak eta mahaitxoak jartzeko irizpideak).

I. ERANSKINA

Ostalaritzako establezimenduei lotutako terrazak eta mahaitxoak jartzeko irizpideak (8.8.25.5. artikulua)

a) Arauek agindutako komunak eduki beharko dituzte elikagaiak saltzeko establezimenduek (okindegiak etab.) baldin eta jendeari arreta emateko azalera lokalaren azalera guztiaren herena (1/3) edukitzeagatik ostalaritzako establezimenduetzat jotakoak badira (dagokion ordenantzako 1.2. artikulua); baita gozotegien osagarriak diren ostalaritzako establezimenduek ere (dagokion ordenantzako 18.4. artikulua), terrazaz baliatzea badute (Espazio Publikoaren Ordenantzako 31. artikulua).

b) Terrazaren gune berezietan terrazak jartzeko baimenak ematean alde bakoitzerako erreferentzia-moduluaren ezaugarriak eta dimentsioak zehaztuko dira, honako hauek kontutan hartuta.

- Intentsitate komertzialaren gradua.
- Irisgarritasuna eta mugikortasuna espazio publikoan.
- Lokalen beheko solairuaren azalera.
- Aztertu beharreko espazioaren ezaugarri funtzionalak.

Horren guztiaren kalterik gabe, terrazak jartzeko baimentzeko alde zurrerako bete beharreko baldintza izango da espazio publikoaz eskumena duen sailak eremu bakoitzerako baterako egindako antolaketa-proiektua. Horretan instalazio-kopurua eta horien dimentsioak eta kokalekuak aipatuko dira.

c) Era berean, merkataritza-korridoreetan eta hiri barruko bidexketan alde zurrerako antolaketa-proiektua beharrezkoa izango da. Irizpidetzat hartuko dira horretarako lokalaren fatxadaren luzera eta kalearen zabalarekiko irisgarritasuna. Proiektu horiek burutzeko oinezkoen joan-etorria eta larrialdietako ibilgailuen zirkulazioa kontutan hartuko dira.

d) Altzarien ezaugarriak (tamaina, materiala, kolorea etab.) ere kontutan hartuko dira terrazaren gune berezietan, merkataritza-korridoreetan eta hiri barruko bidexketan.

e) II-T azpitaldeko establezimenduek, edo txokoek, ezin izango dute terraza eduki.

f) II-R azpitaldeko establezimenduek, edo barrarik gabeko jatetxeek, terraza eduki dezakete, Espazio Publikoaren Ordenantzarekin edo honen ordean indarrean sartzen den arautegiarekin bat etorritu. Hala ere, oinezkoen aldeetan, plazetan eta espazio libreetan beharrezko baldintza izango da terraza jarriko den kaleak edo espazioak gutxienez 9 metroko zabalera edukitzea.

3. Las entidades de crédito, agencias y oficinas bancarias y de compañías de seguros en planta baja (uso 7 terciario, situación 1 oficina), quedan sujetos a la regulación recogida en el artículo 6.4.3 de las Normas Reguladoras de los Usos del Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao.

DISPOSICIONES ADICIONALES

1. La regulación contenida en los artículos 8.8.27 y 8.8.30 sobre distintos usos (hostelería, alimentación, etc.), prevalecerá sobre lo dispuesto al respecto por las Ordenanzas municipales correspondientes. No obstante, las solicitudes de licencias y las Comunicaciones Previas presentadas con anterioridad al 8 de Marzo de 2016 en que entró en vigor del acuerdo de suspensión adoptado el 24 de febrero de 2016, se resolverán conforme a la normativa vigente en el momento de la presentación respectiva.

2. El plano 01 Ámbitos de regulación (plano de ámbitos de regulación y consecuentemente, los tramos densificados, los corredores comerciales, las sendas urbanas y las zonas especiales de terrazas identificadas), Anexo II (Gráfico relativo a la forma de medir las distancias) y Anexo I (Criterios de implantación de terrazas y Veladores) podrán modificarse por acuerdo de la Junta de Gobierno que se publicará en la forma reglamentaria.

ANEXO I

Criterios generales de instalación de terrazas y veladores vinculados a los establecimientos de hostelería (artículo 8.8.25.5)

a) Los establecimientos del sector de la alimentación (tales como panaderías, etc.) que, por disponer de una superficie de atención al público superior a un tercio (1/3) de la total de local, sean consideradas como de hostelería (artículo 1.2 de la Ordenanza correspondiente), así como los establecimientos de hostelería complementarios de pastelerías (artículo 18.4 de la Ordenanza correspondiente), cuando puedan disponer de terraza (artículo 31 de la Ordenanza de Espacio Público) deberán contar obligatoriamente para ello con los aseos reglamentarios

b) Las autorizaciones para instalación de terrazas en las zonas especiales de terrazas se concederán determinando unas dimensiones y características del módulo de referencia de cada zona, con arreglo, a los siguientes:

- Grado de intensidad comercial;
- Accesibilidad y movilidad en el espacio público;
- Superficie en planta baja de los locales; y
- Características funcionales del espacio a estudiar.

Sin perjuicio de todo esto, será requisito previo para poder autorizar terrazas la aprobación de un proyecto de ordenación conjunto de cada citado ámbito, elaborado por el Área competente en materia de espacio público, con señalamiento del número de instalaciones, así como de sus dimensiones y emplazamiento respectivos.

c) Igualmente, será necesario un proyecto de ordenación previo en los corredores comerciales y en las sendas urbanas tomando como criterios la longitud de fachada del local y la accesibilidad con referencia a la anchura de la calle. Para la elaboración de dichos proyectos se tendrá en cuenta además el flujo peatonal y el tránsito de vehículos de emergencia.


d) Asimismo, se establecerán las características del mobiliario (tamaño, material, color, etc.) en las zonas especiales de terrazas, en los corredores comerciales y en las sendas urbanas.

e) Los establecimientos del Subgrupo II-T, o txokos, no podrán contar con terraza.

f) Los establecimientos del Subgrupo II-R, o restaurantes sin barra, podrán contar con terraza, de conformidad con la regulación de la Ordenanza del Espacio Público o normativa que la sustituya. No obstante, en áreas peatonales, plazas y espacios libres, será condición necesaria que la calle o espacio donde pretenda instalarse la terraza disponga de un mínimo de 9 metros de ancho.

ANEXO II II. ERANSKINA


FORMA DE MEDIR LAS DISTANCIAS. CROQUIS ORIENTATIVOS (art.8.8.27)
DISTANTZIAK NEURTZEKO MODUA. KROKIS ORIENTAGARRIAK (8.8.27. artikulua)



- TRAMO DE CALLE DENSIFICADO
DENTSITATE HANDIKO KALE-TARTEA
- ESTABLECIMIENTO EXISTENTE
LEHENDIK DAGOEN ESTABLEZIMENDUA
- ESTABLECIMIENTO PROYECTADO QUE CUMPLE
DISTANTZIA BETETZEN DUEN ESTABLEZIMENDU-PROIEKTUA
- ESTABLECIMIENTO PROYECTADO QUE NO CUMPLE DISTANCIA
DISTANTZIA BETETZEN EZ DUEN ESTABLEZIMENDU-PROIEKTUA
- ESTABLECIMIENTO PROYECTADO QUE NO CUMPLE POR DAR FRENTE A TRAMO DENSIFICADO
BETETZEN EZ DUEN ESTABLEZIMENDU-PROIEKTUA AURREALDEA DENTSITATE HANDIKO KALE-TARTEAN EGOTEAGATIK
- RADIO INFLUENCIA (METROS). ESTABLECIMIENTO EXISTENTE
ERAGIN-EREMUA (METROTAN). LEHENDIK DAGOEN ESTABLEZIMENDUA
- D RADIO DESDE CUALQUIER PUNTO DE LA FACHADA (METROS)
ERRADIOA FATXADAREN EDOZEIN PUNTUTIK (METROTAN)
- PROYECCIÓN DEL LOCAL EN FACHADA
LOKALAREN PROIEKZIOA FATXADAN
- L** PUNTO LÍMITE DE FACHADA
FATXADAREN MUGA-PUNTUA
- A** EXTREMO DE FACHADA DE ESTABLECIMIENTO EXISTENTE
LEHENDIK DAGOEN ESTABLEZIMENDUAREN FATXADAREN ERTZA

ANEXO II II. ERANSKINA

FORMA DE MEDIR LAS DISTANCIAS. CROQUIS ORIENTATIVOS (art.8.8.27)
DISTANTZIAK NEURTZEKO MODUA. KROKIS ORIENTAGARRIAK (8.8.27. artikulua)



- TRAMO DE CALLE DENSIFICADO
DENTSITATE HANDIKO KALE-TARTEA
- ESTABLECIMIENTO EXISTENTE
LEHENDIK DAGOEN ESTABLEZIMENDUA
- ESTABLECIMIENTO PROYECTADO QUE CUMPLE
DISTANTZIA BETETZEN DUEN ESTABLEZIMENDU-PROIEKTUA
- ESTABLECIMIENTO PROYECTADO QUE NO CUMPLE DISTANCIA
DISTANTZIA BETETZEN EZ DUEN ESTABLEZIMENDU-PROIEKTUA
- ESTABLECIMIENTO PROYECTADO QUE NO CUMPLE POR DAR FRENTE A TRAMO DENSIFICADO
BETETZEN EZ DUEN ESTABLEZIMENDU-PROIEKTUA AURREALDEA DENTSITATE HANDIKO KALE-TARTEAN EGOTEAGATIK
- RADIO INFLUENCIA (METROS). ESTABLECIMIENTO EXISTENTE
ERAGIN-EREMUA (METROTAN). LEHENDIK DAGOEN ESTABLEZIMENDUA
- D RADIO DESDE CUALQUIER PUNTO DE LA FACHADA (METROS)
ERRADIOA FATXADAREN EDOZEIN PUNTUTIK (METROTAN)
- PROYECCIÓN DEL LOCAL EN FACHADA
LOKALAREN PROIEKZIOA FATXADAN
- L PUNTO LÍMITE DE FACHADA
FATXADAREN MUGA-PUNTUA
- A EXTREMO DE FACHADA DE ESTABLECIMIENTO EXISTENTE
LEHENDIK DAGOEN ESTABLEZIMENDUAREN FATXADAREN ERTZA